

Korporazio-gobernu ona, kooperatiben esparruan*

EIDER VIVANCO SANTA CRUZ

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko graduduna
Graduada en Derecho por la Universidad de Deusto

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 17/11/2020

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 19/07/2022

Laburpena: XX. mendetik aurrera, inbertitzaileen konfiantza berriz ere errekupe-
ratu nahian, eta gizartean sortu ziren lehentasunak eta printzipio etikoak kontutan
izanik, enpresak egoerari aurre egiten hasi ziren “gobernu ona”ren doktrinaren bi-
dez, eta bide horrek gaur eguneraino jarraitu du. Harrezkero, enpresek gardentasu-
nez eta modu iraunkorrean jokatzeko konpromisoa hartu dute, aldi berean garapen
ekonomiko jasangarrian lagunduz. Filosofia eta mugimendu hori guztia sozietate
kapitalisten inguruan sortu bazen ere, kooperatibetan berez zaintzen dira gobernu
onaren atalak, euren ADNan osatzen duten printzipio eta balio berezien bitartez.

Gako-hitzak: korporazio-gobernu ona; kooperatibak.

*“Legelari gazteentzako Adrián Celaya saria”ren V. Edizioan saritutako lana, Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2020an emana.

El buen gobierno corporativo en el ámbito de las cooperativas

Resumen: A partir del siglo XX, con el ánimo de recuperar de nuevo la confianza de los inversores y tomando en consideración los principios éticos y las prioridades sociales, las empresas comenzaron a afrontar la situación mediante la doctrina del “buen gobierno”, periplo que ha continuado hasta nuestros días. Desde entonces, las empresas han asumido el compromiso de actuar de modo sostenible y transparente, colaborando al mismo tiempo con un desarrollo económico sostenible. Si bien este movimiento filosófico nació en torno a la empresa capitalista, las cooperativas respetan por su propia naturaleza los mandatos del buen gobierno, mediante sus propios principios y valores que conforman su ADN.

Palabras clave: buen gobierno corporativo; cooperativas.

Good Corporate Governance In The Field Of Cooperatives

Abstract: Starting in the 20th century, with the aim of regaining the trust of investors and taking into account ethical principles and social priorities, companies began to face the situation through the doctrine of “good governance”, a journey that has continued to this day. Since then, the companies have assumed the commitment to act in a sustainable and transparent way, collaborating at the same time with a sustainable economic development. Although this philosophical movement was born around the capitalist company, cooperatives by their very nature respect the mandates of good governance, through their own principles and values that make up their DNA.

Key words: good corporate governance; cooperatives.

AURKIBIDEA: I. SARRERA; II. KORPORAZIO-GOBERNU ONA. JATORRIA ETA BILAKAERA: 1. Olivencia Txostena (1998); 2. Aldama Txostena (2003); 3. Uztailaren 17ko 26/2003 Gardentasunari buruzkoa Legea; 4. Gobernu Onaren Kode Bateratua (2006); 5. Sozietate Kotizatueta Gobernu Onaren Kode Berria (2015); III. GOBERNU ONA KOOPERATIBETAN: 1. Kooperatiben izaera berezia; 2. Gobernu ona, jaurbide organikoari lotuta: a) Biltzar Orokorra; b) Kontseilu Artezkaria; c) Kontu-hartzailera; IV. GOBERNU ONA EUSKADIKO KOOPERATIBEI BURUZKU LEGE BERRIAN: a) Biltzar Orokorra; b) Kontseilu Artezkaria; V. KOOPERATIBEN GOBERNU ONA PRAKTIKAN; VI. GOGOETA ETA ONDORIOAK; VII. BIBLIOGRAFIA ETA BESTE ITURRIAK.

I. SARRERA

Filosofiak eta politikak mendeetan zehar proposatu dituzten printzipio etikoak ez ziren seriotasunez planteatu XX. mendera arte. Mende hartako 60ko hamarkadatik aurrera hasi ziren printzipio hauek positibizatu eta sakonki ekonomia eta enpresa mailan aplikatzen. II Mundu Gerrak, Gerra Hotzak, Afrika eta Asiako deskolonizazio prozesuak eta abarrek gizartean atzera bueltatzeko beldurra sortu zuten. Hau gutxi baltitz, XXI. mendean zehar, bai mundu mailan eta baita Europa mailan egon ziren eskandalu-ekonomikoen ondorioz, sozietate eta merkatuegan mesfidantza sortu zen¹.

Inbertitzaileen konfidantza berriz ere errekueratu nahian, eta gizartean sortu ziren lehentasunak eta printzipio etikoak kontutan izanik, egoerari aurre egiten hasi ziren “gobernu ona”ren doktrinaren bidez, eta bide horrek gaur eguneraino jarraitu du.

Aipatutako gorabera historiko horietatik ondorioztatu zen garrantzitsua zela enpresek gardentasunez eta modu iraunkorrean jokatzeko konpromisoa hartzea, aldi berean garapen ekonomiko jasangarrian lagunduz. Ildo berari ekinez, apur bat beranduago, 2002. urtean, *World Business Council on Sustainable Development*² delakoak (WBSCD: Garapen Jasangarriko Munduko Enpresa Kontseilua) “Sozietate Erantzukizun Korporatiboa” (Responsabilidad social corporativa) adierazmoldea eratziki zuen.

Filosofia eta mugimendu hori guztia sozietate kapitalisten inguruan sortu zen, hasiera batean sozietate kotizatueta, gerogarrenean araurik esanguratsuenak ez kotizatuerei ere hedatzeko, baina zer gertatzen da koo-

¹ FERRUZ AGUDO, L.; MARCO SANJUAN, I. eta ACERO FRAILE, I. «Códigos de buen gobierno: un análisis comparativo. Especial incidencia en el caso español». *Aposta. Revista de ciencias sociales*. 2010an, 46.zk.

² 200 enpresa baino gehiagoz osatutako erakunde bat da, honek enpresen gapaen jasangarrian jarduten du. 1995ean sortu zen eta egoitza Genevan, Suitzan du.

peratiben esparruan? Gaur egun kooperatibek ekonomia-jarduera esan-
guratsua burutzen dute merkatuan, Gizarte Ekonomiaren bizkarhezurra
izanik, eta are gehiago euskal ekonomiaren kasuan, Arrasateko Korpora-
zioaren kontuzko erreferentzia izanik. Baina nola islatu merkataritzako
sozietateentzat sorturiko arau eta kodeak kooperatiben esparrura? Koo-
peratibetan, gainera, ez al dira berez zaintzen gobernu onaren atalak, eu-
ren ADNan osatzen duten printzipio eta balio berezien bitartez?

Gradu Amaierako Lan honetan gai hori aztertuko dugu, kooperati-
ba-sozietateek Korporazio-Gobernu onaren eremuan zeresan eta zeri-
kusi handia dutela erakutsiz. Izan ere, kooperatibak gizarte, ekonomia eta
kultura helburuetarako bazkidez osatzen diren borondatezko sozietateak
dira, jabetza bazkideena izanik eta kudeaketa demokratikoarekin funtzio-
natuz, baina hala ere, badago zer hobetu, atal honetan, ikusiko dugunez,
benetan gobernu ona erdietsi nahi bada. Arauketa orokorreaz aparte, Eus-
kadiko Kooperatiben Lege berria ere jorratuko dugu, zenbait aldaketa
eta berrikuntza ekarri dituelako gai honen inguruan.

Horrenbestez, hori gutzia azaltzeko, lana hiru atal nagusitan egituratu
dut: hasteko, gobernu onari buruzko arauketa orokorraren jatorria eta
bilakaerari buruzko azalpena; bigarrenik, gai hori kooperatiben esparru-
ra islatuko dut, zer dagoen ondo eta zer hobetu daitekeen aztertuz; eta
amaitzeko, gure hurbileko testuingurua jorratuko dut, Euskadiko Koo-
peratiben Lege berriak ekarritako berrikuntzak hizpidean jarrita.

Metodologiari dagokionez, lana burutu ahal izateko, batetik, lege-tes-
tuak aztertu ditut, zehatzago esanda, gobernu onaren inguruko arau eta
kodeak, Espainiako legeria orokorraren panorama zein den antzemateko,
baita kooperatiben inguruko lege-eraentza ere, lege orokorra eta Eus-
kadiko lege berria hain zuzen. Horretaz aparte, hainbat eskuliburu, li-
buruen kapitulu eta artikulua zientifiko jorratu ditut, zenbait kontzeptu
eta ideia argitu ahal izateko.

II. KORPORAZIO-GOBERNU ONA. JATORRIA ETA BILAKAERA

Aurretik aipatu bezala, eta beste herri batzuetan gertatu zen moduan, Espainian ere finantza-eskandaluek eta enpresa enblematikoen porrotak agerian utzi zuten esparru horretan praktika edo egiteko modu onak ezarri behar zirela, jarduera ekonomikoari sinesgarritasuna emateko berriz.

Ibilbide horren bilakaera azalduko dugu jarraian:

1. Olivencia Txostena (1998)

Gobernu korporatibo onari buruzko lehen erregulazioa, politika esparruan, Felipe Gonzalezen gobernu sozialistarekin sortu zen, 80. hamarkadan. Maastricht-eko itunean ezartzen ziren irizpideekin bat egiteko eta Europan indartuta sartzeko, Espainiak defizit arazo bat zuen, defizit altuegia. Honi aurre egin ahal izateko gobernu sozialista honek hainbat pribatizazio jarri zituen martxan. Pribatizazio hauen bitartez enpresa saldu ordez, akzioak saldu ziren, era horretan enpresa publikoen kontrol estrategikoa Estatuaren esku gelditzen zen.

Bigarren pribatizazio oldea 1997-2004 urte bitartean gertatu zen, José Maria Aznar presidente zela. Pribatizazio horretaz baliatuz, gobernuaren esku zeuden sektore publikoak pribatizatu egin zituen, hauen buru bere konfiantzako jendea jarritz. Era honetan pribatizatuta zeuden enpresen agintea mantendu zuen.

Momentu honetan, Partidu Popularreko Jose Maria Aznar gobernuko presidente zela hasi ziren gobernu onari buruzko lehen erregulazioak. 1998an Sozietateen Administrazio Kontseiluen Kode Etikoa Aztertzekeo sortu zen Batzorde Bereziak, txosten bat argitaratu zuen: Olivencia Kodea³. Txosten hau lehengoia izan zen eta gaur egungo Gobernu Onaren Kodeen aitzindaritzat hartzen da.

³ Batzorde horretako buru izan zen MANUEL OLIVENCIAREN omenez, Sevillako merkataritzako katedradun ospetsua.

Txostena 1998an argitaratu zen eta hazi esanguratsu horrek erdietsi zuen “*soft law*” praktiken bidez, korporazio-gobernua eguneko aztergaia izatea. “*Soft law*” honen praktikak txostena gomendio-bilduma bihurtzen du. Bilduma horretan jasotako 23 gomendioak ez ziren lotesleak, baina gero Gardentasunari buruzko Legeak (uztailaren 17ko 26/2003 Legeak) onetsiko zuen “*comply or explain*” erregelaren oinarriak ezarri zituen. Printzipio honek ezarri zuen sozietateek gomendioak bete behar zituztela, eta bete ezean, ez-betetze horren arrazoa azaltzeko zama zuten. Gobernu Ona zaintzeko betebeharrak hau Sozietate Kotizatuentzat erregulatzen hasi zen lehenengoz, eta apurka-apurka joan zen Sozietate Ez-kotizatueta hertzen.

Kode honen oinarri nagusia akziodunek sozietateengan konfiantza berreskuratu ahal izatea da, euren interesak hobeto babestuz. Horretarako, bai Administrazio Kontseiluak, baita Administrazio Exekutiboek ere akziodunen kontrola pasa beharko dute. Helburu horrekin zenbait gomendio ezartzen dira, hauexek izanik esanguratsuenak:

- Erabakiak hartzeko modua aldatzen da, kudeaketa eta jabetza bereiztuz. Bestela esanik, gomendatzen da akziodunekin zeri-kusirik ez duten kontseilariak sartzeari administrazio-organon, lanbide-erperientzia eta ospea izateagatik, hobeto gauzatu ahal izateko euren berrikuspen-eginkizunak.
- Kontseilarien zeregina denez sozietatearen interesak defendatzea, inbertitzaile txiki eta ertainen interesen defentsa sustatzeko mekanismoak ezarriko dituzte.
- Kontrol-batzorde eskuordeak agertzen dira lehen aldiz. Halakoek garrantzia berezia dute eta gaur egun arte iraun dute, administrazio-organoren berrikuspen-eginkizuna gauzatzuz. Zehatzago esanda, halako hiru batzorde gomendatzen dira: Auditoretza Batzordea, sozietatearen kontabilitatea egiaztatzeko;

Izendapenen Batzordea, kontseilariak hautatzeko; eta Ordainsarien Batzordea, administratzaileentzako ordainsari-politika ikuskatzeko.

- Karguaren iraupena mugatzea ere gomendatzen da, hain zuzen ere, kontseilariak hiru administrazio-kontseilu baino gehiagotan ez egotea, agintealdi horiek 4-5 urtetik beherakoak izatea eta kontseilariak 70 urterekin erretiratzea, blindaje-klausulak ezabatuz.
- Sozietateak izan ditzakeen arrisku nagusiak identifikatzea gomendatzen da, informazio-sistemak eta barne-kontrola egoera horretara egokituz.
- Azkenik, bai akziodunak, bai merkatua orokorrean eta baita iritzi publikoa ere kontuan hartuta, informazio-politika berriak zehaztuko dituzte, eurei moldatuak.

Laburbilduz, 20 urte baino gehiago igaro dira Olivencia Txostena sortu zenetik eta esan dezakegu gaur egun ez direla bete 1998ko aurreikuspenak, atalik garrantzitsuenetan behintzat. Gobernu korporatiboari buruzko azken txostenek⁴ diote kontseilari independenteen kopurua handitu egin dela, bai, baina gomendatzen zen “gehiengo zabaletik” urrun dago zenbaki hau. Zernahi gisaz, hastapen ezin hobea izan zen, bertan jaso ziren gomendioek bidea zabaldu baitzuten, gaur egun dugun egoeraraino heltzeko.

⁴ Argitaratutako azken txostenak dioenez (2018), «el porcentaje de compañías en las que los consejeros independientes representan a la mayoría del consejo ascendió al 28,6 % en 2018 (28,1 % en 2017). En el caso de las sociedades del Ibex 35, esta cifra sube al 54,6 % (60 % en 2017). De las sociedades que no forman parte del índice, el 70 % tenía al menos un tercio de *consejeros independientes*», baina oraindik ez da guztiz ezarri gehiengo zabalaren kultura. CNMVren Informe de Gobierno Corporativo de las entidades emisoras de valores admitidos a negociación en mercados regulados, 2018.

(https://www.cnmv.es/DocPortal/Publicaciones/Informes/IAGC_2018.pdf) 19.or. azken kontsulta: 2020-05-11.

2. Aldama Txostena (2003)

2002. urtean Espainiako Gobernuak Gardentasuna eta Merkatuen Segurtasuna Sustatzeko Batzorde Berezia sortu zuen. Honek Enrique Aldama enpresarioa zuen buru, eta 2003an aurkeztu zuen Gobernu Korporatiboari buruzko hobekuntza eta gomendio gehiago jasotzeko txostena. Txosten honek “marko etiko” berri bat ezarri zuen, Nazio Batuen Erakundeak eta Europar Batasunak ezartzen zituen ikuspegi berrietan oinarrituz. Olivencia txostenetik haratago joan nahi izan zen, sozietate kotizatuen gardentasuna hobetzeko legerian aldaketa batzuk proposatuz. Aldama txostenaren atal aipagarrienetako bat da sozietate kotizatuek korporazio-gobernuaren inguruko txostena urtero egiteko betebeharra ezartzea.

Gobernu Korporatiboaren Urteko Txosten honetan, sozietateek Kode berria nola eta noraino betetzen zuten azaldu behar zuten, horretarako hainbat puntu jorratuz, horien artean:

- Sozietateak jabetzan duen kapitalari buruzko informazioa eman behar zuen.
- Leialtasun printzipioa dela-eta, administratzaileek ezin zuten kargurik onartu lehiakide ziren enpresetan, interes-gatazkak saihestu behar zituzten, administratzaileei buruzko erabakietan abstenitu behar ziren eta enpresa-sekretuak gorde behar zituzten kargua utzi ondoren ere.
- Administrazio Kontseiluaren eta akziodunen batza nagusiaren funtzionamendurako berariazko erregelak ezarri behar ziren.
- Akziodunen arteko itunak sozietateen web orrialdeetan argitaratu behar ziren.
- Web-orrialdeen bitartez, halaber, akziodunek sozietatearekin zerikusia zuen informazioa eskura izango zuten.

- Batzarraren funtzionamendua arintzeko mekanismoak ezarri behar ziren, baita botoa modu telematikoan edo postaz emateko sistemak ere.
- Auditoreen, analisten eta kalifikazio-agentzien independentzia bermatzeko neurriak ezarri behar ziren.
- Administrazio Kontseiluan batzordeak eratzea proposatzen zen (Batzorde Betearazleak, Auditoretza Batzordeak, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeak, Estrategia eta Inbertsioen Batzordeak...)
- Administrazio Kontseiluko eta goi-zuzendaritzako kideen ordainsariei buruzko informazioa argiro azaldu behar zen.

Guztiarekin, Aldama Txosten berri honek gomendio horiek egin arren, Batzordeak enpresen autorregulazioa bultzatzen du: adibidez, ez zaio mugarik jartzen kontseilarien erretiratze-adinari; ez dute beharrezko ikusten Presidente eta kontseilari eskuorde karguen arteko bereizketa; eta, azkenik, ez da zehazten kontseilari independenteen kopurua.

Ikus daitekeenez, Batzordean enpresen autorregulazioaren aldeko ikuspegia gailendu zen, lege-arauketa zabalagoa defendatzen zuten kideen gaintik, nahiz eta garai hartako Gobernuko presidenteorde Rodrigo Ratok txosten honen aurkezpenean iragarri gomendio batzuek lege-maila lortu ahal izango zutela, beranduago Gardentasunaren Legea aldarrikatzean egiaztatu zen bezala.

3. Uztailaren 17ko 26/2003 Gardentasunari buruzkoa Legea

Lege honek Aldama Txostenean jasotako zenbait proposamen bildu zituen, hauei lege maila emanez.

Hasteko, sozietate kotizatuak behartzen ditu Batzar Orokorraren eta Administrazio Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamendu-errega-

lamendu bana onartzera, horrela gardentasunari buruzko aurreikuspenak lege eta estatutuetan garatzeko.

Horrez gain, sozietate kotizatu orok gobernu korporatiboaren urteko txostena argitaratzeko betebeharra ezarri zuen, besteak beste, atal hauek zehatzuz: sozietatearen jabetza, administrazio-egitura eta gobernu korporatiboaren gomendioen jarraipen-maila. Halaber, informazio hori akzio-dunen artean zabaltzeko web-orrialdea sortzeko betebeharra ezartzen da.

Hirugarrenez, lege honek sozietate guztietako (ez bakarrik kotizatuetak) administratzaileen erantzukizunak zabaltzen ditu, arreta eta sekretu-eginbeharrez gain fideltasun eta leialtasun eginbeharrak gehituz. Administratzaileekin jarraituz, hauek debekatuta dute ordezkaritza-eskaera publikoaren bidez eskuordetu zaizkien boto-eskubideak egikaritzea interes-gatazka dakarten egoeretan.

Akziodunei dagokienez, eta hauen parte-hartzea sustatzeko, absentsentzia murriztuz, boto telematikoa ahalbidetzen da. Akziodun hauen informazio-eskubidea ere berritzen da, bazkideek eguneko aztergaien zerrendan jasotako gaiez gain, Balore Merkatuko Nazio Batzordearen azken batzar orokorretik lortutako edozein informazio ere jasoko dute hemendik aurrera.

4. Gobernu Onaren Kode Bateratua (2006)

2005eko uztailean, José Luis Rodríguez Zapatero (PSOE) buru duen gobernuak lantalde berezi bat sortzea erabaki zuen, Balore Merkatuko Nazio Batzordean presidentea zen Manuel Conthe Jaunaren gidaritzapean. Talde honen eginkizuna zen Olivencia eta Aldama txostenak bate-ratu eta eguneratzea.

Egindako lan, kontsulta, eztabaida eta dokumentuak berregitearen emaitza izan zen 2006ko maiatzaren 19an onetsi zen Gobernu Onaren Kode Bateratua. Aurreko txostenez aparte, Kode honek Gobernuaren,

Balore Merkatuko Nazio Batzordearen eta Espainiako zeinbait finantza-erakunderen proposamenak ere jaso zituen, osagarri gisa.

Balore Merkatuari buruzko Legearen 116. artikuluan jasotakoaren ildotik, Kode Bateratuaren testua eta ikuspegia ulertzeko oinarritzko printzipioa borondatezkoa den arren, “*Comply or explain*” printzipioa mantenduko da.

Conthe Kodearen ezaugarri nagusia akziodun minoritarioek jasoko duten babesean dago. Babes hau hiru esparrutan emango da batez ere: finantza-informazioaren kalitatea eta egiazkotasuna, Kontseiluaren egitura eta, azkenik, kontseilari zein exekutiboek jasotako ordainsarien gardentasuna.

Hasteko, finantza-informazioaren kalitatea eta egiazkotasuna bermatu nahi izan ziren, urteetako finantza-eskandaluak eta administratzailek eginitako kontu-faltsutzeak ez errepikatzeke. Honen arira, zenbait arau berezi ezarri ziren, besteak beste:

- Auditoretza Batzordearen zeregina eta erantzukizuna indartzeko neurri berriak sartu ziren, eginkizun bikoitzarekin: sozietateak aurre egin behar dien arriskuak kudeatzeko politika bat onartzea, eta langileek edozein irregularitasun modu anonimoan ohartarazteko sistema bat ezartzea⁵.
- Auditore aldaketetan gardentasuna indartzen da. Auditorea ordeztu behar denetan, sozietateak eta auditoreak berak publikoki azaldu behar dituzte egondako desadostasunak, eta auditore berriak ezin izan ditu sozietatearekin adostu aplikatu beharreko kontabilitate-irizpideak.

⁵ Estatu Batuetan 2001. urtean gertatu zen “Enron” eskandalu famatua, horrexegatik gertatu zen, auditoretzan izandako akatsen ondoriozko porrota jasan behar zuen enpresa ospetsu horrek. Han, ordea, “hard law” aukeratu zen konponbide bezala, *Sarbanes Oxley-Act* (SOX) izeneko Legea onetsiz, kontrol eta zigorrak ezartzeko.

- Basileako Komitearen⁶ proposamen bat jasotzen du, eskandalu askok emandako esperientzian oinarritua: finantza-irregulartasunak aurkitzen direnean, paradisu fiskaletan dauden sozietate katea agertzen da. Horregatik gomendatzen da Kontseiluaren osoko bilkurak onestea diru-kopuru handi hauen mugimendu-erabakiak.

Bigarrenez, Kontseiluaren egiturari dagokionez, Kodeak mantentzen du Olivencia Txostenak egindako kontseilarien sailkapena, baina orain kontseilari independenteak izendatzeko baldintzak zehazten dira, eta alde aurretik finkatutako prozedura zorrotzaren arabera hautatuko dira, eta ez modu arbitrarioan. Horrez gain, zenbait erregela zehaztu ziren:

- Akziodun batek ezin du Kontseiluaren gehiengoia izendatu, salbu eta kapitalaren %50 baino gehiago duenean.
- Kontseilari independenteen kopurua ezingo da izan Kontseiluaren herena baino txikiagoa.
- Kontseilari batek zein baldintza bete behar dituen argituko da. Kontseilari independente hauek prozesu zuzen eta zehatz bat jarraituta aukeratuko dira, beraz, lehen presidentek zuten boterea orain izendapenak egiten dituen biltzarrak izango du. Aukeraketa honetan kontuan izango da Kontseilari honek aurretik beste sozietate batekin harremanik ez izana. Bestalde, karguaren iraupena 12 urtekoa izango da gehienez jota.
- Azkenik, Kodeak proposatu zuten Administrazio Kontseiluetan emakumezkoak ere sartzea. Genero-aniztasunaren inguruko aipamen hau guztiz berria zen Espainiako Gobernu Onaren

⁶ *Comité de Supervisión Bancaria de Basilea* edo *Basel Committee on Banking* bezala ere ezaguna, 1975ean Suizan sortu zen eta G-10 osatzen zuten estatuetako banku zentralen zuzendariez osatutako batzordea izan zen.

Kodeei zegokienez⁷, eta beranduago, Emakumezko eta Gizonezkoen arteko Benetako berdintasuna lortzeko 3/2007 Legeak, martxoaren 22koak, gomendio horri ekin zion.

Hirugarrenik, exekutiboek jaso beharreko ordainsariaren gardentasunari dagokionez, egoera edo “panorama” juridikoa ez da oso argia, Olivia zein Aldama Txostenek honi buruz egindako gomendioak oso azalekoak baitziren. Conthe Kodeak, ordea, zer esan handia du kontseilari eta exekutiboen ordainsariei dagokien erregulazioan. Horretarako, *Higgs Report*⁸ britaniarrak egiten duen bereizketan oinarritzen da, ordainsari-politika eta ordainsari-kopuruak aipatuz.

- Ordainsari-politika Kontseiluak onartu beharreko agiri batean agertuko da. Agiri horretan kontseilari guztien ordainsariari aplikatu beharreko printzipio orokorrak finkatuko dira. Agiri hori akziodunei luzatuko zaie urtero, eta ondoren, politika hauek Biltzar Orokorrean bozkatuko dira.
- Ordainsari-kopuruaren inguruan Conthe Kodeak bi jarraibide ematen ditu: hasteko, kopuruok zehazteko ahalmena Kontseiluari dagokio; horrez gain, Kontseiluaren erabakia Ordainsari Batzordean bozkatu ostean, Biltzar Orokorrean ere bozkatuko da.

Guztiarekin, Gobernu Onaren inguruko Txosten eta Kode horiekin guztiekin batera, legegilea ere antolamendu juridikoa osatzen joan da, sozietate-arauketan aginduzko xedapenak (eta ez bakarrik gomendioak)

⁷ Kodearen arabera, Administrazio Kontseiluetan genero-aniztasuna lortzea da sozietate kotizatuek epe ertainera erdietsi beharreko eragingarritasun-helburua, ikuspegi ekonomikotik ere ez delako zentzuzkoa enpresa handietan talentuaren %50 desaprobetzatzea. Ildo horretatik, Kodeak gomendatzen du ahalegin gehigarria egitea, emakumezkoen presentzia zuzendaritzara ere heltzeko. *CNMV. Código Unificado de Buen Gobierno de las Sociedades Cotizadas 2006*, 15. Gomendioa, 25. or.

⁸ *Review of the role and effectiveness of non-executive directors* bezala ere ezagutzen den txostena.

behar zirela uste izan duenean. Positibazio horri esker, korporazio gobernu onaren printzipioak bultzatu eta eguneratu dira.

Helburu horrekin zenbait Lege esanguratsu eman dira, Espainiako enpresen gobernu ona bermatzeko, baina esanguratsuen, beharbada, 31/2014 Legea da, Kapital Sozietateen Legea aldatzen duena, korporazio-gobernua hobetzeko. Lege horren ondoriozko berrikuntzek berehalako eragin praktikoa ekarri zuten kapital sozietate guztietan, kotizatua izan zein ez. Berrikuntzarik esanguratsuenak gobernu-organoari buruzkoak ziren: administratzaileen independentzia eta profesionaltasuna azpimarratzen da; arreta eta leialtasun eginbeharrak mantentzen dira (arreta biguntzen den arren leialtasuna gogortzen da); zuzendarien ordainsariak aipatzen dira eta zereginak gehiago kontrolatzen dira.

Ikus daitekeenez, Gobernu Onaren 2006ko Kode Bateratua onetsi zenetik, zenbait lege-ekimen garatu dira, gomendio batzuk jorratuz. Horregatik, Ministroen Kontseiluaren 2013ko Akordioaren bidez, adituen batzorde bat osatu zen, batetik, enpresen gobernu-ona bermatzeko hartu behar ziren neurriak proposatzeko, eta bestetik, Batzorde Merkatuko Nazio Batzordeari aholkularitza eskaintzeko, 2006ko Kodea aldatzerakoan.

Horren guztiaren ondorioz, sozietate kotizatuen Gobernu Onaren Kode Berria onetsi zen, Balore Merkatuko Nazio Batzordeak 2015ean hartutako Erabakiaren ondorioz.

5. Sozietate Kotizatuetao Gobernu Onaren Kode berria (2015)

Kode hau prestatzean, Adituen Batzordeak kontuan hartu zituen zenbait atal: 2006ko Kode Bateratuaren betetze-maila eta garrantzia; gobernu onaren nazioarteko estandarrak, eta bereziki Europako Batzordeak emandako gomendioak; nazioarteko erakundeen zenbait proposamen, doktrinaren ekarpenak edota beste herri batzuetako legeriak.

Guztiarekin, Kode berri honek “borondatezko izaera” mantentzen du, “*cumplir o explicar*” printzipioa aplikatuz. Hala ere Kapital Sozietateei buruzko lege berriak kode honekin batera datozen zenbait derrigorrezko minimo batzuk ezarri ditu. Beraz esan daiteke Kode hau borondatezkoa den arren oinarritzko minimo batzuk Kapital Sozietateei buruzko legeak ere jasotzen dituela, eta beraz hauei lege lerruna emango zaie, hala derri-gorrezkoak bihurtuz.

Edozein kasutan ere, Kodeak azpimarratzeko moduko hainbat berrikuntza ekarri zituen, besteak beste:

- Formatoa: Kodeak lehenengoz bereiztu zituen printzipioak eta gomendio zehatzak. Hain zuzen ere, 25 printzipiotan oinarritutako 64 gomendio zerrendatzen dira, hiru ataletan sailkatuta: atal orokorrak, akziodunen Biltzar Orokorra eta Administrazio-Kontseilua. 64 gomendio horien artean, batzuk Conthe Kodetik ekarritakoak dira, baina horrez gain beste 23 gomendio sartu dira, eta lege testuetan jasotakoak kendu egin dira (berbarako, kontseilari-kategoria desberdinen definizioak, Kapital Sozietateen Legearen 529 duodecies artikulura bildu baitira).
- Genero-ikuspegia aipatzen da. Gai hori ez da berria, Conthe Kodeak ere aipatzen zuelako zerbait horren inguruan, baina testu hau zehatzago da, 14. Gomendioan hauxe ezartzen baitu: «(...) *Y que la política de selección de consejeros promueva el objetivo de que en el año 2020 el número de consejeras presente, al menos, el 30% del total de miembros del consejo de administración*». Gomendio honen betetze-maila urte honetako txostenetan aztertu beharko da.
- “Sozietate Erantzukizun Korporatiboa” ekarri da hizpidera. Aipamen hori Administrazio Kontseiluaren atalean jaso da, berrikuntza esanguratsuenetarikoa bihurtuz. Bi gomendio (54 eta 55) dakartzan printzipio bakarra izan arren, gai honek ga-

rrantzia berezia dauka, Gobernu Onaren Kodeei dagokienean lehen aldia delako horri buruzko gomendio bat jasotzen dela. Aurretik aipatu kodeetan nabari da arlo honen inguruan dagoen hutsunea: Aldama txostenak Gizarte Erantzukizunean zuzenean jarduten ez zuen arren, behintzat gobernu korporatiboan marko etiko baten garrantzia aipatu zuen; Conthe Kodeak, ostera, ez zion inolako erreferentziarik egin.

Kode berri honekin tendentzia hori aldatzen da, 54⁹ eta 55¹⁰ gomendioei esker. Hauetan esaten da Sozieteeek Gizarte Erantzukizunean esku hartu behar dutela estrategia korporatiboan bitartez, bai ingurumenaren iraunkortasunean eta baita gai sozialetan, beti interes talde ezberdinak kontuan hartuz. Horrez gain kudeaketa-txosten berezi bat sortzeko betebeharra ere aipatzen da, gai honen inguruan egiten ari den kudeaketa jasotzeko.

- Kontseilarien ordainsariak sakonago aztertzen dira. Aurreko kodeetan ere zerbait jasotzen zen honen inguruan, baina kode berriak 9 gomendio zerrendatzen ditu, eta euren artean hauexek azpimarratuko ditugu:

56. Gomendia: *«la remuneración de los consejeros sea la necesaria para atraer y retener a los consejeros» (...)* *«no tan elevada como*

⁹ 54. Gomendia *«Que exista una política de Responsabilidad Social Corporativa que incluya los principios o compromisos que la empresa asuma voluntariamente con los distintos grupos de interés, y que en ella se identifiquen, al menos, los objetivos de dicha política, la estrategia corporativa en materia de sostenibilidad, medio ambiente y cuestiones sociales y los mecanismos de supervisión del riesgo no financiero, la ética y la conducta empresarial, entre otros.»*

¹⁰ 55. Gomendia *«Que la sociedad informe, en un documento separado o en el informe de gestión, sobre los asuntos relacionados con la responsabilidad social corporativa, utilizando para ello alguna de las metodologías aceptadas internacionalmente.»*

para comprometer la independencia del criterio de los consejeros no ejecutivos»¹¹

59. Gomendioa: ordainsari aldakorrari dagokionez, benetan lan egiteagatik jasotzen dela ziurtatzeko, gomendatzen da ordainketa atzeratzea *«hasta comprobar que se han cumplido las condiciones de rendimiento previamente establecidas»*.

63. Gomendioa: Kontseilariekin sinatutako kontratuetan itzulketa klausula edo *«cláusula de reembolso»* sartzea gomendatzen da, sozietateak erreklamatu ahal diezazkion lana bete barik jaso dituen ordainketak, zehatzago esanda, erreklamatu ahal dezan *«el reembolso de los componentes variables de la remuneración cuando el pago no haya estado ajustado a las condiciones de rendimiento o cuando se hayan abonado atendiendo a datos cuya inexactitud quede acreditada con posterioridad»*.

64. Gomendioa, berrienetarikoa eta, agian, eztabaidatuen. Kontratuak suntsiaraztearen ondoriozko kalteordainak kontrolatzen dira, hauxe xedatuz: *«que no excedan de la retribución total anual equivalente a dos años de trabajo y que no se abonen hasta que no se haya comprobado el cumplimiento de los criterios de rendimiento previamente establecidos»*. Azken gomendio honen bidez aurre egin nahi zaio gai oso eztabaidatu bati, alegia, sozietate kotizatuetako kontseilarien blindatzeei.

Beti ere, gomendio horien guztien betetze-maila Korporazio Gobernuari buruzko Urteko Txostenetan adierazi behar da, 2015eko ekitalditik.

¹¹ Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, gomendio horrekin, aditu askoren ildoari jarraitzen dio, izan ere, kontseilari independente kontsideratzeko ezarritako 12 urteko gehieneko epea dela eta, aditu horiek uste zuten independentzia “gal” zezaketela ordainsari aultuegiak izateagatik.

2015eko Sozietate Kotizatuen Gobernu Onari buruzko Kode hau onartu eta gero, zenbait lege onetsi dira, gobernu onaren alorrean kontuan hartu beharrekoak. Halakoak dira, berbarako, Kontuen Auditoretzari buruzko 22/2015 Legea¹². Lege honek aldaketa handiak ekarri zituen enpresen antolakuntzan, hala nola: kanpoko auditoretza-enpresak 10 urterotero aldatzea, edota Ikuskatzaileen kidegoa sortzea, auditoreen zereginak berrikusteko. Helburua da auditoretzen merkatua antolatu eta indartzea. 11/2018 Legeak, bestalde, finantzakoa ez den informazioari eta aniztasunari buruzkoak, Korporazio Gobernuaren Urteko Txostenean eman beharreko informazioa zabaltzen du, aniztasun-politikak ere sartuta, besteak beste, genero-aniztasuna.

III. GOBERNU ONA KOOPERATIBETAN

Ikusi den bezala, azken urteotan korporazio-gobernua edo gobernu onaren gaia enpresa-kudeaketa onaren adierazgarri bihurtu da, baita akziodunei konfiantza transmititzeko tresna esanguratsua ere, eta hainbat eta hainbat kode zein arau argitaratu dira esparru horretan, hasieran sozietate kotizatuentzat bakarrik, baina emeki-emeki esparrua zabaltzen joan da. Egin-eginean ere, 2008. urteko krisiak eta “kapitalismo basatiak” hausnarketa sakona ekarri zuten gizartean: sozietateen kudeaketa hobetu eta, batik bat, gardentasuna bultzatzeko beharrezana ikusi zen. Beraz, hurrengo kode guztiek horrexetan jartzen dute azpimarra. Erregulazio hauek garrantzia ematen die “ekonomia soziala” lantzeari, eta hau lantzen ez duten sozietateen barne sistemak aldatzen saiatzen dira.

Testuinguru horretan sortzen den zalantza da, eta kooperatiben kasuan zer? Ulertu behar da gobernu onaren printzipioak orokorrean aplikatu dai-

¹² Kontuen Auditoretzari buruzko 22/2015 Legea, EAO 173 zk, uztailaren 21ekoa.

tezkeela, enpresaren tamaina, kudeaketa-mota edota itxura juridikoa kontuan hartu gabe? Edota, haatik, kooperatiben izaera berezia aintzat hartuta, bestelako kodeak eratu beharko dira eurentzat? Pentsa daiteke, bestalde, kooperatibetan ez direla beharrezkoak gobernu onaren gomendio edo arauak, erakunde hauek euren ADN-an daramatzatelako erantzukizunaren zein kudeaketa demokratikoaren printzipioak, edota zintzotasuna, elkartasuna zein berdintasuna bezalako balioak. Beste batzuen iritzirako, egungo merkatuan kapital-sozietateekin berdintasun-mailan jardun ahal izateko, eta erakunde lehiakorak izateko, kooperatibek aurrerapausoak eman behar dituzte, sozietate horietara hurbilduz, euren esentzia galdu gabe, noski, eta hurbiltasun horrek ekarriko du gobernu onaren printzipioak ere goitik behera aplikatu behar izatea kooperatibetan.

Testuingurua hori izanda, jarraian kooperatiba-erakundeen berezitasunak aztertuko ditugu sakonago, eta berezitasun horiek direla bide, gobernu-onaren zein printzipio aplika dakiekeen eta zeintzuk ez.

1. Kooperatiben izaera berezia

Kooperatibak dira beharrian eta interes berdintsuak dituzten pertsonak sortzen duten erakundea, elkarlanean arituz beharrian horiek asetzeko, betiere, kudeaketa demokratiko baten barruan eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak¹³ zehaztutako balore eta printzipioak errespetatuz. Printzipioak hauek ez dira euren artean independenteak; aitzitik, batuta daude, eta, beraz, printzipio horietako bat urratzen bada, gainon-

¹³ Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa (gaztelaniazko Alianza Cooperativa Internacional edo ACI) gobernu kanpoko erakundea da, 1895. urtean sortutakoa. Bere helburua da mundu osoko kooperatibak bildu, ordezkatu eta zerbitzatzea. Honen eragin praktikoa esanguratsua da adierazpen batzuk egiten dituela aplikatu beharreko printzipioak finkatu eta eguneratuz. Gaur eguneko balore eta printzipioak 1995ean Manchesterren egindako adierazpenetik eratorritzen dira. Adierazpen horretan, lehenengoz bereizi ziren kooperatibaren baloreak eta printzipioak.

tzeakoak ere kaltea jasango dute¹⁴. Printzipio horiek beren beregi aipatu-ko ditugu labur-zurrean, kooperatiben esentzia hobeto ulertzeko:

- *Ateak irekita* edo *borondatezko atxikimendua*. Edonor sar daiteke kooperatiban, bazkide izateko baldintzak eta erantzukizunak onartzen baditu, eta edonoiz irten daiteke kooperatibatik ere. Hau oinarri izanda zaila litzateke inolako bereizkeriarik egitea gizarte mailagatik, politikagatik, arrazagatik...
- *Kudeaketa demokratikoa*: Kooperatiban bazkideek hartuko dituzte erabakiak era demokratiko batean, erregela nagusia bazkide bat/boto bat izanik.
- *Bazkideen parte hartze ekonomikoa*: Kooperatibak erakunde kapitalistak ez diren heinean, kapitala ez da oinarrizkoa osagaia, baina bai beharrezkoa. Kapital hori osatzen da bazkideek ekitatez egindako ekarpenekin, diruzkoak edo diruzkoak ez direnak.
- *Autonomia eta independentzia*. Kooperatibak erakunde autonomoak izan behar dira, eta beste erakunde edo gobernuekin akordioak egin arren, ezin da menpekotasunik sortu erakunde horiei begira, ondorioz erabakitze ahalmena beti egongo da kooperatibaren eskuetan.
- *Heziketa, formazioa eta informazioa*. Heziketa eta formazioa beti izan dira oinarrizko zutabeak kooperatibetan, ezinbestekoak baitira, batetik, kooperatibaren funtzionamendu ona bermatzeko, eta bestetik, “espíritu kooperatiboa” zabaltzeko. Horretarako, derigorreko fondo berezia dago kooperatibetan, ezagutzak irakasteaz gain, gaitasunak edo trebetasunak ere lantzeko.

¹⁴ MARTÍNEZ CHARTERINA, A. «Los Valores y los principios cooperativos». *REVESCO. Revista de estudios Cooperativos*, 1995, 61. zb.

- *Kooperatiben arteko kooperazioa.* Kooperatibek hobeto gauzatzeko euren jarduerak eta zerbitzatuko dituzte bazkideak elkarrekin jardunez gero, egitura lokal, nazional eta nazioarteko bidez. Horretarako, proposatzen da, batetik, bigarren mailako kooperatiba gehiago osatzea, eta bestetik, kooperatiben arteko hartu-eman indartzea, beste kooperatiba batzuekin akordioak sinatuz, bakoitzaren xedea hobeto garatzeko.
- *Gizartearen aldeko interesa.* Kooperatiba bakoitzak bazkideen interesak asetzeaz gain, kokatuta dagoen komunitatearen alde egingo du lan.

Printzipioez landara, Nazioarteko Aliantza kooperatiboak balore batzuk ere zehaztu zituen:

- *Elkarri laguntzea,* talde-lanei izugarritzko garrantzia emanez.
- *Erantzukizuna edo konpromisua,* parte-hartze aktiboa eta inplikazioa bermatuz.
- *Demokrazia.* Bazkidea da protagonista nagusia.
- *Berdintasuna eta ekitatea.* Bi-biak dira bazkideak tratatzeko irizpideak.
- *Zintotasuna.* Gardentasunaren alde lan egiten da, jarduera zuzenak, etikoak eta ohitura onen araberakoak gauzatzuz.
- *Gizarte-bokazioa.* Kooperatibak kontuan izan beharko du bere ingurua.

Printzipio eta balore hauen idazkera 1995ean ezarri zenetik 25 urte igaro diren arren, euren horretan diraute, eta gaur egunera erraz egokitu daitezke. Horrela, itxura batean behintzat, kooperatibek testuinguru aproposa eskaintzen dute gobernu onaren arau eta gomendioak aplikatzeko, bat datozelako zenbait printzipio eta baloreekin. Are gehiago, gobernu

onaren kodeetako xedapenak gomendio hutsak diren bitartean, kooperatibetako printzipio eta lege eta estatutuetan jasotzen dira, zuzeneko aplikazioa izanik.

Dena den, kooperatiben esparruan bada beste zailtasun bat ere: lege-aniztasuna. Espainiar Konstituzioak agindu bezala, kooperatibak sustatu behar dira, legeria egokiaren bidez¹⁵. Estatu mailan Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legea dago, baina horrez gain, gaur egun ia autonomia erkidego guztiek dute euren kooperatibei buruzko legea¹⁶, eta sektoreko legeak ere badaude (kreditu-kooperatiben kasua). Lege-aniztasun horrek dakar organoen funtzionamendua eta, ondorenez, Gobernu Onaren arauketa, kasuan kasukoa izatea, aplikatu beharreko lege zehatzaren arabera, batzuetan desadostasunak sortuz eta arauketa unifikatua zail bihurtuz.

Gauzak horrela, jarraian aztertuko dugu Gobernu Onaren inguruan aipatu gomendioetatik, zeintzuk aplika daitezkeen kooperatiben jardunbide organikoan, eta zeintzuk ez, Kooperatiben 27/1999 Legean oinarrituz, eta zenbait berezitasun autonomiko ere kontuan izanda. Azkenik, kooperatiben azterketa amaitzeko, kooperatibismoaren euskal eredia ekarriko dugu hizpidera.

¹⁵ Espainiar Konstituzioaren 129.2. art.: *Botere publikoek eragingarritasunez bultzatuko dituzte enpresetan parte hartzeko era desberdinak, eta, legeria egokiaren bidez, kooperatiba-sozietateak sustatuko dituzte. Halaber, neurriak hartuko dituzte, langileek ekoizbideen gaineko jabetza eskura dezaten.*

¹⁶ Kanaria uharteak izan ezik, baina laster izango dute euren lege berezia, 2019ko otsailan Kanariako Gobernu Kontseiluak Parlamentuan aurkeztu zuelako Kooperatiben Lege proiektua, aginduzko txostenak jaso eta gero, eta 2020ko otsailaren 20an hasi da kontsulta publikoaren tramitea.

2. Gobernu ona, jardunbide organikoari lotuta

Gobernu Onaren Kodeek egitura organiko bakartzat hartu dute sozietate kapitalisten Batza Orokorra eta Administrazio Kontseilua, eta egitura honek zenbait desberdintasun ditu kooperatiba-sozietateen egiturekin.

Egitura organiko berezi horrek Kode Bateratuaren aplikagarritasuna mugatzen du, bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatzen duten kooperatibek (Eroski, kasurako) erakutsi dutenez. Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena aurkeztu dutenean, ikusi da ezin izan dituztela guztiz bete Kode Bateratuaren gomendioak, aurki azalduko ditugun zenbait arrazoiaren ondorioz. Ikus ditzagun, bada, kooperatibaren organoak banan-banan, zailtasuna eta hobetzeko aukera non egon daitekeen aztertzeko.

A) *Biltzar Orokorra*

Sozietate kotizatuen akziodunek Batza Orokorra duten modura, kooperatibetan, bazkideen borondatea Biltzar Orokorraren bitartez adieraziko da. Bi organo horiek antzeko helburua dute: sozietateen parte direnei ahotsa ematea.

Horrenbestez, Biltzar Orokorra da organo gorena, eta legeak esleitutako eskumen eskusiboez gain (hala nola, Kontseilu Artezkariko kideen kontrako erantzukizun-akzioak egikaritzea), jarraibideak eman ahal dizkio organo horri, baita baimenpean jarri ere hartu beharreko zenbait erabaki ere.

Eskumen zabal horiei esker, bazkideek administrazio-organoren gaineko kontrola gauzatu ahal dute, eta hori, alde batetik, komenigarria da, administratzaileen gehiegikeriak saihesteko. Beste alde batetik, alabaina, asko kritikatu da Biltzarrak zuzenean esku hartzea ohiko kudeaketan, arrazoi desberdinen ondorioz: gehiegizkoa izategatik; milurteko berriaren erronkekin bat ez etortze gatik (izan ere, sozietate anonimoetan joera kontrakoa da: oinarrizko gaiak bakarrik utzi Batzaren esku eta erabakitzeko-ahalmen zabala aintzatetsi administratzaileei); edota arrazoi prakti-

ko hutsengatik (Biltzarraren egitura eta funtzionamenduak asko zailtzen dute kudeaketa erabakietan behar den arintasuna eta zurruntasun teknikoa)¹⁷. Horregatik gomendatzen da estatutuetan zehaztea esku-hartze horren norainokoa, Biltzar Orokorrek jarduteko gutxieneko eremu bat utz diezaizen gainerako organoei, eta organoen arteko koordinazioa errazagoa izan dadin.

Organo honen funtzionamenduari dagokionez, kooperatiben Gobernanu Onak eskatzen du bazkide guztiek behar bezalako informazioa izan behar dutela Biltzarraren inguruan (noiz eta zein gairi buruz egingo diren), zentzuz bozkatzeko beste ezagutza izan dezaten gai horien inguruan. Ildo horretatik, bereziki zaindu beharko dira deialdia, eguneko aztergaien zerrenda edota bazkideen informazio-eskubidea.

Deialdiarekin hasteko, gutxienez bilera baino 15 egun lehenago egin behar da orokorrean (Kooperatiben Legea), edo epe laburragoan zenbait lege autonomikok agindutakoaren ariora (10 egun lehenago, gure kasuan bezala)¹⁸. Honen inguruan, doktrinak epe labur horiek zabaltzea proposatzen du, estatutu zein araudi bidez, bazkideen informazio- eta partehartze-eskubideen onerako.

Biltzarretan aztertu beharreko gaien aldetik, zerrenda administratzaileek finkatzen dute, baina kooperatiben araudi gehienak aintzatesten dute kontu-hartzaileek edo bazkideen ehuneko adierazgarri batek gai berriak sartu ahal dituela. Aukera hori mesedegarria da gobernu onaren ikuspegitik, interes desberdinei men egitea dakarrelako, baina autonomia

¹⁷ VICENTE PESCADOR, A. «Capítulo 5. Equilibrio entre profesionalización y gestión democrática desde la perspectiva de la ACI», *Estudio sistemático del principio cooperativo de gestión democrática*. ENCISO, M. (zuz.) eta GAMINDE, E. (zuz.) Madrid: Dykinson, 2018.

¹⁸ Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 35.6. artikulua «*Hau izango da deialdia jendaurrean jartzeko epea: bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta hirurogei egun lehenago gehienez.*»

erkidego guztietara zabaldu beharko litzateke. Akatsa, ordea, beste atal bategan dago: gai-zerrenda berria argitaratzeko epea laburregia da¹⁹, eta jatorrizko deialdiaren parekoa izan beharko litzateke, gaia berri horiek proposatu ez dituzten bazkideentzat guztiz ezezagunak direlako eta denbora behar dutelako gaiok jakin eta horien inguruko informazioa jasotzeko.

Azkenik, bazkideek Biltzarrean parte-hartu eta eskubideak egikaritu ahal izatea baldintzatzen duen beste faktore esanguratsu bat da informazio-eskubidearen norainokoa. Kontseilu Artezkariak uko egin diezaioke informazioa eskaintzeari, kooperatibaren interesak arrisku larrian jartzen badira. Lege batzuen arabera, ezetza emateko arrazoi nahikoa litzateke informazioa eskatzen ari den bazkideak gehiegikeriaz jardun duela uste izatea; beste batzuetan, ostera, ez da halakorik aipatzen. Horrenbestez, Kontseilu Artezkariaren bidegabekeriak saihesteko, estatutuetan hobeto zehaztu beharko litzateke zein kasutan eta zergatik eman daitekeen ezetza.

Edonola ere, Kooperatiben legeriak onartzen du akzio judizialak egikaritzea, Kontseilu Artezkariak uko egiten dionean eskatutako informazioa emateari, eta aukera hori bat dator bazkideari eman beharreko babesarekin, eta ondorenez, gobernu onarekin.

B) *Kontseilu Artezkaria*

Kooperatibako administratzaileek osatutako kidego organoa da, kooperatiba ordezkatu eta kudeatzen dutenak. Organo hau kooperatibaren eguneroko bizitzaz arduratzen da.

Oro har, esan daiteke organo horren diseinua Sozietate Anonimoe-tako Administrazio Kontseiluan oinarritzen dela, unean uneko gobernu

¹⁹ Epe hau 4 egunekoa izango da gehienetan (EAE; Murtzia; Gaztela-Leon; Gaztela-Mantxa), baina 7 egunetara ere luzatu izan da autonomi erkidego batzuetako legedietan (Madrid, Valentzia). Beste kasu batzuetan aldiz, erregulazioetan ez da eperik zehazten (Andaluzia eta Kataluina)..

onaren arauak txertatuta (Olivencia Kodekoak, kontuan hartuta Kooperatiben Legea 1999koa dela). Horrenbestez, zenbait gai barneratu dira dagoeneko: Kontseilu Artezkariaren berrikuspen-eginkizunak, administratzaileei ordaindu ahal izatea (betidanik dohaineko kargua izan denean), bazkide ez diren kontseilariak egoteko aukera edota erantzukizun-sistema, sozietate anonimoen araubidera igorpena eginez.

Zernahi gisaz, oinarrizko atalak falta dira:

- Hasteko, “Kontseilari independente”aren figura ez da guztiz egokitzen kooperatiben egiturara. Aztertutako Gobernu Onaren araudiaren arabera, kontseilari independentea bere baldintza pertsonal eta profesionalengatik izendatuko litzateke, eta ez akziodunekin edo zuzendariekin dituen harremanengatik. Kooperatiban, aldiz, Kontseilu Artezkaria, normalean, bazkideez osatuta dago, eta hauei bakarrik eskatzen zaie lege-debeku edo bateraezintasunen bat ez izatea (estatutuen bidez bakarrik eskatu ahal zaizkie gainerako baldintzak: antzinatasuna, esperientzia, sektoreko ezagutza teknikoak...). Hala ere, aurrerapauso nabaria eman da, bazkideak ez diren kontseilariak onartu direnean, kopuru mugatuan izan arren (gehienez kideen 1/3 edo 1/4). Halakoei bai eskatzen zaie kualifikazioa eta esperientzia, betidanik aipatu izan den oztopoa gaindituz (kudeaketa demokratikoari kalte egiten zaiola), eta gobernu onak proposatzen duen kudeaketa profesional, anitz eta independentaren alde eginez.
- Ildo berari ekinez, kooperatiben arauketari leporatu ahal zaion beste akats bat aditu independente horien kopuruan datza. Gobernu onaren arauak gutxieneko portzentaila aipatzen duten bitartean, kooperatiben arloan gehienekoak ezartzen dira (gehienez, kideen 1/3 edo 1/4), eta horrek ekar dezake

kontseilari independente gutxi egotea, organoaren objetibotasunari eta profesionaltasunari kalte eginez, eta ondorenez, baita bazkideen babesari ere.

- Bigarrenez, Kontseilari independente eta arrunten izendapenaren inguruan orain arte eskatzen zenari (bazkide izatea, antzinasuna...) beste baldintza batzuk erantsi beharko litzazkioke gobernu onaren ikuspegitik, hala nola: generoaren inguruko aipamena; kargua betetzeko prestakuntza eta esperientzia profesional egokia; eginkizunak bete ahal izateko beste denbora dedikatzea; eginkizunok aldi-aldi ebaluatzea eta horren inguruko formazioa eskaintzea, atal teknikoek haratago kooperatiben printzipio eta balioak ere etengabe landuz.
- Hirugarrenik, karguaren iraupenari dagokionez, kontseilariak 3-6 urte bitartean daude karguan (2-5 urte gure kasuan), baina berriztatzearen bitartez epealdi horiek modu nabarian zabaldu ahal dira. Legeek ez dute mugatzen gehieneko agintaldi-kopurua²⁰, komenigarria izango litzatekeen arren, kontseilariak lan eraginkortasuna, independentzia eta objektibotasuna ez galtzeko.
- Laugarrenez, Gobernu Onaren kodeak eskatzen dituen gomendioetatik aplikatzerakoan zailtasunik handienak ematen dituen ekarriko dugu hizpidera: kontseilarien ordainsaria. Orain arte kargua gehienetan dohakoa izan da, dohakotasun honen arrazoa ondo azaltzen du GARCÍA ÁLVAREZek, esanez

²⁰ Gobernu Onaren Kode Bateratuak, ostera, 29. Gomendioan adierazi zuen kontseilaria, gehienez, 12 urte egon zitekeela segidan karguan, baina ez gehiago. CNMV: *Código Unificado de Buen Gobierno de las Sociedades Cotizadas*, 2006, 32. or.

https://www.cnmv.es/DocPortal/Publicaciones/CodigoGov/Codigo_unificado_Esp_04.pdf (azken kontsulta, 2020/05/13).

«Esta visión restrictiva de la posibilidad de que el cargo de administrador en una cooperativa sea retribuido parece encontrar su fundamento último en la falta propiamente de ánimo de lucro de la sociedad cooperativa, así como en el hecho de que el administrador si es, a su vez, socio, puede ver retribuida su actividad en la cooperativa de otras maneras»²¹. Gaur egun, kargu honen ohiko dohainekotasunerako tendentzia gairiditu dela esan daiteke, baina Estatuko legeak bazkide ez diren kontseilariei eta kontu-hartzaileei bakarrik ordaintzea aurreikusten duen bitartean (eta ez bazkide direnei)²², arau autonomikoek xedatzen dute kontseilari guztiei ordaintzea, bazkide izan zein ez. Gaur egun, logikoa dirudi administratzaileei ordaintzea kooperatibetan ere, kudeatzen dituzten gaien konplexutasuna, dedikazioa eta, batez ere, erantzukizuna kontuan izanik. Ildo bertsutik, logikoa dirudi baita ere, ordainsari hori ez lotzea bazkide izaerarekin, baizik eta bestelako irizpide objektiboekin, gobernu onaren arauak proposatu bezala (benetan gauzatutako eginkizunak, formazioa, lanbide esperientzia, dedikazioa...). Halaber, estatutuetan ordainsari hauen zenbatekoak zehazteko unean, komenigarria litzake sistema guztiz edo partzialki aldatzeko aukeratzea, ordainsari horiek benetan egindako kudeaketarekin lotu ahal izateko, edota epe ertain edo luzera lortutako emaitzekin.

²¹ GARCÍA ÁLVAREZ, B. «La retribución de los miembros del consejo rector o de los administradores en las sociedades cooperativa». *REVESCO. Revista de estudios cooperativos*. 2015eko hirugarren lauhilekoa, 119 zk., 62. or.

²² Kooperatiben 27/1999 Legearen 40. artikulua «Los Estatutos podrán prever que los consejeros y los interventores no socios perciban retribuciones, en cuyo caso deberán establecer el sistema y los criterios para fijarlas por la Asamblea, debiendo figurar todo ello en la memoria anual. En cualquier caso, los consejeros y los interventores serán compensados de los gastos que les origine su función».

• Azkenik, Kontseilarien eginbehar eta erantzukizunei dago-kienez, orokorrean²³, Sozietate Anonimoetako administratzaileentzat ezarritakoak dira, alegia, arreta eginbehar zehatza eskatzen zaie²⁴. Horrenbestez, badirudi kontseilarietara bete-betean aplika dakizkiela arreta zein leialtasun eginbeharrak (Euskadiko Kooperatiben Lege berria oso argia da atal horretan, ikusiko dugun bezala), baita horren inguruan eratu den doktrina eta gobernu onaren gomendioak ere. Hala ere, deigarria da, erantzukizun eta betebeharren atal honetan beren beregi ez aipatzea kooperatiben printzipioak errespetatzeko betebeharrak orokorrean, eta lege autonomiko batzuetan bakarrik egotea jasota atal hori. Printzipio horiek argi uzten dute bazkideak sozietatearekin duen lotura, ondorioz printzipioen ez betetzea, gobernu-akatsa izango litzateke (sarritan, familia edo antzeko loturak egon litezke zuzendarien eta kontseilarien artean, eta horregatik ahalegin berezia egin behar da fideltasun-betebeharrak zehazteko, jokabide oportunistak eta desleialak saihesteko).

C) Kontu-hartzaitetza

Organo honen zeregin nagusia kooperatibaren fiskalizazioa da, merkataritzako sozietateetan dagoen Auditoretza Batzordearen parekoa litzake.

²³ Kooperatiben 27/1999 Legearen 43. artikulua «*La responsabilidad de los consejeros e interventores por daños causados, se regirá por lo dispuesto para los administradores de las sociedades anónimas, si bien, los interventores no tendrán responsabilidad solidaria*»

²⁴ Zeharkako igorpen hau Kapital Sozietateei buruzko Legearen 225. artikulura da, eta honek dio «1. Los administradores deberán desempeñar el cargo y cumplir los deberes impuestos por las leyes y los estatutos con la diligencia de un ordenado empresario, teniendo en cuenta la naturaleza del cargo y las funciones atribuidas a cada uno de ellos. 2. Los administradores deberán tener la dedicación adecuada y adoptarán las medidas precisas para la buena dirección y el control de la sociedad. 3. En el desempeño de sus funciones, el administrador tiene el deber de exigir y el derecho de recabar de la sociedad la información adecuada y necesaria que le sirva para el cumplimiento de sus obligaciones».

Kooperatiben Legearen 38. artikuluren arabera, kontu-hartzaile hauek bazkideen artean hautatuko dira, eta kideen 1/3 aditu independenteak izan daitezke. Kopuru zehatza estatutuetan finkatuko da, eta ezin da izan Kontseilu Artezkarikoa baino handiagoa.

Horrenbestez, egituraren aldetik, organo honek ez ditu betetzen gobernu onaren arauak, bertan esaten denez, kide guztiak izan behar direlako kanpoko adituak, Kontseiluak besterik erabaki ezean²⁵. Horretara, organoaren independentzia bermatu nahi da, finantza-informazioa ahalik eta objektiboena eta fidagarriena izan dadin.

Azkenik, adierazi behar da kooperatiben araudiaren arabera bateraezina direla Kontseilu Artezkari eta kontu-hartzailetzako karguak. Gainera, kargu horiek ezin dira aldi berean bete lehen mailako hiru kooperatiba baino gehiagotan. Atal honetan, badirudi kooperatiben legeria gobernu onaren kodeen aurretik doala. Izan ere, kodeek ez dute aipatzen karguen bateraezintasun hori, eta bakarrik gomendatzen da arauak ezartzea kontseilariak osatu ahal dituzten kontseilu-kopuruen inguruan; kooperatibek, aldiz, ondo mugatuta dute atal hori, gobernu onaren gomendioa soberan jarraituz.

IV. GOBERNU ONA EUSKADIKO KOOPERATIBEI BURUZKO LEGE BERRIAN

Euskal Herriaren kasuan, kooperatibismoak pisu berezia dauka. XIX. mendean, Altos Hornos inguruan sortu zen mugimendua hazten joan zen, Arrasateko Korporazioari esker (MCC) erreferente bihurtu arte,

²⁵ Gobernu Onari buruzko Txostenaren 39. gomendioak dio «(...) y que la mayoría de dichos miembros sean consejeros independientes» kontrata, Kooperatiben Legearen 38.3 artikulua dio «*Los interventores serán elegidos entre los socios de la cooperativa*».

nazio zein nazioarte mailan²⁶. Talde honek urteetako esperientziarekin erakutsi du bariabile ekonomiko eta etiko-moralak batera aplikatzen dituen sozietatea errentagarria eta arrakastatsua izan daitekeela.

Euskal kooperatibismoaren garrantzi horri helduta, lana amaituko dugu gobernuaren gaia bereziki aztertuz gure kooperatibetan, 2020ko urtarilean indarrean sartu den 11/2019 Lege berria hizpidera ekarrita.

Legea honek ekarri duen lehen aldaketa da beren beregi aipatzen direla kooperatiben printzipioak, egungo testuinguru globalizatuan identitate kooperatiboa galtzearen arriskuari aurre egiteko. Horrez gain, gaur egun berebiziko garrantzia duen genero-aniztasuna ere aipatzen du, 3 ataletan:

- 32.4 artikuluan esaten da Kooperatibek eta horien egiturako elkarteek ahalegina egingo dutela organoetako presentzia orekatua izan dadin, genero berdintasunerako neurriak ezar daitezzen, batez ere bizitza pertsonala, familiakoa eta lana uztartzeko.
- 47.4. artikuluan, Kontseilu Artezkaria egituratzeko gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkartza orekatuaren alde egiten da.
- Etekinen aplikazioa zehazterakoan, berdintasun arloko heziketa bultzatzen da, Heziketa Fondoaren helburuen artean hauxe aipatuz: «barkide eta langileen trebakuntza eta heziketa, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunerantz abiatzeko».

²⁶ Horixe adierazten dute taldearen magnitude ekonomikoek: 12.215 milioi euroko sarrerak, 264 erakunde, edota 25.1 milioi euro gizarte-ekintzara destinatuta, 2018ko urteko txostenak aipatu bezala

<https://www.mondragon-corporation.com/sobre-nosotros/magnitudes-economicas/> (azken kontsulta: 2020/05/13).

Azken bost urteetan, bestalde, 8000 lanpostu baino gehiago sortu dira, eta erdia baino gehiago, hurbileko testuinguruan.

<https://www.mondragon-corporation.com/sobre-nosotros/magnitudes-economicas/informe-anual/> (azken kontsulta: 2020/05/13)

Berrikuntza esanguratsuenak, dena den, jardunbide organikoaren ataletan gertatu dira.

A) *Biltzar Orokorra*

Oraingo testuaren ildotik, sozietatearen ekitaldia itxi eta lehenengo sei hilabeteetan ohiko Biltzar Orokorra “batu” behar da, lehen epe horretan “deitu” behar zen bitartean, horrela ziurtatuz bilera egingo dela. Horrez gain, teknologia berriak sartu dira bai deialdirako, baita bilera parte-hartzea errazteko ere, behar besteko informazioa bermatuta egon dadin, eta asistentzia erraztu dadin.

Deialdiarekin lotuta, biltzarra egin baino 15 egun lehenago egon behar da argitaratuta (eta ez 10 egun lehenago, aurreko testuan bezala), gobernu onak agindu bezala bazkideek epe nahikoa izan dezaten deialdi horren berri izateko.

Informazio-eskubidearen aldetik, lege berriak xedatzen du estatutuek zehaztu behar dutela Kontseilu Artezkariak zein kasutan uka dezakeen informazio hori, ausartegia edo oztopatzailea izateagatik.

Azkenik, biltzarraren erabakiak aurkaratzeko sistema goitik behera aldatu da, Kapital Sozietateen Legean ezarritako irizpideak jarraituz. Hortaz, orain, sozietate kapitalistetako Biltzar Orokorren zein Euskal Herriko kooperatibetako Biltzar Orokorren erabakiak modu berean aurkaratzen dira, legitimazio, prozedura eta epeari dagokionez, segurtasun juridikoa bermatuz.

B) *Kontseilu Artezkaria*

Aldaketarik esanguratsuenak atal honetan gertatu dira, sozietate kapitalistentzako den 31/2014 Legearen zenbait xedapen barneratuz, gobernu onaren joera legegileei ekinez.

Hasteko, Kontseilu Artezkaria oraindik eta profesionalagoa izatea erabaki da, ondorioz 1/3ra handitu da kide ez diren kontseilarien kopurua.

Horrez gain, administratzaileen eginbeharrei dagokienez, artikulua berri oso bat sartu da indarrean, hain zuzen ere, 49. artikulua. Aurreko Kooperatiben legeak²⁷ orokorrean aipatzen zuen enpresaburu zuzen baten arretarekin eta leialtasunarekin jardun behar zutela. Oraingo testuak, aldiz, eginbehar horiek zehazten ditu, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 225. artikuluan eta hurrengoak kontuan hartuta, enpresa-diskrezionalitatearen inguruko 226.a barne. Horrela, areagotu dira arreta eta leialtasun eginbeharrak: datu esanguratsuak isilpean gorde behar dituzte, kargua utzi ondoren ere; debekatu egiten zaie beren edo besteren konturako jarduerak gauzatzea, jarduera horiek kooperatibaren lehiakide badira edo, kooperatibaren interesekin gatazka badakarte... Horrekin batera, luze eta zabal arautu dira eginbehar horiek ez betetzeagatik sor daitezkeen erantzukizunak, eta betiko akzioei gehitu zaie sozietate-ondareari egindako kaltea ordaintzeko betebeharra eta bidegabeko aberastasuna itzultzeko betebeharra, leialtasun eginbeharra urratu denean.

Ildo bertsutik, administratzaileen ordainsaria ere arautu da. Gardentasuna bermatzeko. Horregatik eskatzen da estatutuetan zehaztea ordainsaria finkatzeko irizpideak eta, betiere, Biltzarrak erabakitzea urteko zenbatekoa, kontuan izanda kooperatibaren benetako egoera eta administratzaileak eskaintako zerbitzua.

Amaitzeko, gobernantzaren esparruan funtsezkoa da, baita ere, *Compliance* izenekoa²⁸. Egin-eginean ere, gobernu ona edo korporazio-gobernua

²⁷ Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, EAO 35 zk., 2012ko otsailaren 10ekoa.

²⁸ Enpresek, administrazio-organoaren ekimenez, barne-izaerako jardunbide egokiei buruz hartzen dituzten arauen multzoa da. Horren bidez, zuzendaritza-kideek edo enplegatuek delituak egiteko arriskua murriztuko duen antolaketa-eredu bat ezarri nahi dute.

eta arauak betetzea edo *compliance* eskutik doaz, eta gaur egun, enpresa-esparruan *Compliance kultura* ezarrita dago, enpresa bakoitzari egokitutako *Compliance* Egitarauak abian jarrita. Legeak errealitate hori kooperatiben esparrura hurbildu nahi izan du emeki-emeki, 50 bazkide baino gehiago dituzten kooperatibeetan Delituak Ekiditeko Eredu bat osatzeko betebeharra ezarrita, estatutuen gutxieneko eduki moduan. Erronka izango da eredu horiek Gizarte Ekonomiaren ezaugarri eta dinamiketara egokitzea, arriskuak ekidin, detektatu eta kudeatzeko zereginak ezarritz.

Guztiarekin, bai Euskadiko kooperatiben kasuan, bai kooperatiben kasuan, orokorrean, ikusi da gobernu onaren arauak ezin direla zuzenean eta modu automatikoan islatu kooperatiben araubidera, oinarritzko zenbait berezitasun daudelako. Honen aurrean aukera desberdinak daude: sozietate kapitalisten gobernu onaren arauak moldatzea, kooperatiben esparrura egokitzeko, edota kooperatibentzako bereziki gobernu onaren arau edo kodeak eratzea.

V. KOOPERATIBEN GOBERNU ONA PRAKTIKAN

Erregulazio eta gomendio hauen teoria zuzenean kooperatibetan aplikatzeak arazoak dakartzala azaldu dugu, eta praktika hauek zuzenean ezagutzen dituen Mondragon Korporazioan heziketa kooperatiboaz arduratzen den Iñigo Iñurrategiren iritzia jakin ahal izan dugu.

Ezaguna da Mondragon Korporazioak Autonomia Erkidegoan, Estatu mailan eta nazioartean egiten duen lana. Korporazio hau kooperatibismoak sortutako mugimendutik jaio zen 1956. urtean Arrasaten, momentu hartatik Euskal Herriko lehenengo enpresa- talde bihurtu zen, eta gaur egun 100 kooperatiba autonomo independente baino gehiagok eratzen dute korporazio hau. Nazioartera begira nolabaiteko hesiak apurtu dituela esan daiteke, merkataritza eta produkzio ezarpenak bost kontineetara zabaltzen baititu.

INURRATEGIK aipatzen du kooperatiben gobernu onaren inguruko erregulazio zehatzik egon ez arren sakonki aztertzen den eta kontutan hartzen den arlo bat dela. Hasteko, garrantzitsua deritzo gobernantzaren inguruko marko bat zehaztea, lege berberak ezartzen duen antolaketa sistema eta funtzioak oinarritzat hartu eta bi kooperatiba hausaz aukeratu bagenitu, praktikan ikusiko genuke gobernantzaren aplikazioa desberdina izango litzakela. Praktika hauek jada dauden erregulaziora egokitze baina aldi berean eguneroko errealitatetik ez urruntzeko Mondragonek *Guía para la buena Gobernanza Corporativa Versión 2.0*²⁹ sortu du 2020ko urte honetan. Txosten honek Gobernantza korporatiboaren definizio bezala hurrengo dio «*El gobierno cooperativo es el conjunto de normas, principios y procedimientos que regulan la estructura y el funcionamiento de los órganos de gobierno de la cooperativa. En concreto, establece las relaciones entre el consejo rector, el consejo de dirección, las/los socios/os y el resto de las partes interesadas, y estipula las reglas por las que se rige el proceso de toma de decisiones sobre la compañía para la consecución del Proyecto Socioempresarial de la Cooperativa*». Behin kontzeptua argi izanda, berebiziko azterketa egiten dute bi arlotan, organo bakoitzaren funtzioei dagokienez, organoen arteko adostasuna ziurtatzeko prozesuetan eta konfiantza eta erantzunkidetasun harremanak garatzeko beharrezko prozesuetan.

Bazkideen aukeraketen eta agintaritze organoetako kideen aukeraketen prozedurari beraz benetako garrantzia eman behar zaiola ikus daiteke. Kooperatibetan beste sozietate kotizatuekin konparatuz, bazkideek pisu nabarmena dute erabakiak hartzeari dagokionean, beraz hauen irizpideek eragin garrantzitsua izan dezake kooperatibaren etorkizunean. Bada, lege ezarri gabe nola ziurta genezake kooperatibista bihurtuko denak oi-

²⁹ Jada idatzita dagoen arren oraindik argitaratu gabe dagoen dokumentu bat da. Dokumentu honek aldaketa txiki batzuk izan ditu eta Kooperatiben lege berriaren aldaketak jaso ditu. V. kapitulu hau garatzeko oinarritzat erabiliko den testu hau 2.0 bertsio bat da 2020ko Maiatzaren 19an editatutakoa.

narrizko printzipioak beteko dituela? Prozesua gogortuz adibidez, baina nola gogortu kooperatibisten aukeratze prozesu hau Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak ezartzen duen *Ateak irekita* edo *borondatezko atxikimendua* printzipioa urratu gabe? INURRATEGIK “kultura kooperatiboaren hezkuntzan” egiten du azpimarra, honen bitartez ez da *Ateak irekita* izatearen printzipioa urratuko eta behin kooperatibaren parte bihurtuta, gobernu onak helburutzat duen etika horretan formazio bat emango zaio.

Esan bezala, lege bezala minimo batzuk ezarri daitezke, edo gomen-dioak txosten batean jaso daitezke, baina bai edo bai egon behar da balore eta printzipioen inguruko hezkuntza eta prestakuntza bat. Kooperatibek urteetan jardun dute *management* arloko trebakuntza programetan lan egiten, honek bazkideek sozietatearengan konpromezua sortzen du. Inurrategiren elkarrizketatik ondoriozta daiteke beraz, Mondragon Korporatibak Gobernu onaren inguruan egindako lana batez ere heziketan dela. Heziketa malgua edo aldakorra da, hau kooperatibara egokituko delako, beti ere indarrean dagoen legea eta momentuan bizi de egoera kontuan hartuz. Heziketa honen bitartez kooperatibek nolabait ziurtatzen dute “gobernu on” hau idatzita egoteaz gain, kooperatibisten izateko eran ere egotea.

VI. GOGOETA ETA ONDORIOAK

LEHENENGOA. 90eko hamarkadaren erdialdean, zenbait eskandalu ekonomikok agerian utzi zuten, batetik, administratzaileen jarduera eskasa eta, bestetik, Biltzar Orokorraren kontrolik eza administrazio-organoren gain. Ondorenez, adituen batzordeek eta nazioko zein nazioarteko erakundeek sozietateen gobernu (batik bat sozietate kotizatuena) hobetzeko lan eta proposamenak hasi zituzten (“korporazio-gobernu” deitu zena). Espainian ere, gobernu zentralak eskatutako txostenak egin ziren (Olivencia eta Aldama Txostenak, hain zuzen).

BIGARRENA. Hasieran, proposamenak Gobernu Onaren Kodeetan sartu ziren. Kode horietan, kapitalaren osarari buruzko gardentasunari edo administrazio organoaren eraketa eta funtzionamenduari buruzko gomendioak jaso ziren (kontseilari mota desberdinak, ordainsariei buruzko informazioa eta kontrola, auditoretza zein izendapenen batzorde bereziak, etab.). Ondoren, zenbait lege eraldaketek gomendio horietako batzuk aginduzko arau bihurtu zituzten (Kapital Sozietateen Legea eraldatzen duen 31/2014 Legea nabarmendu behar). Era berean, Gobernu Onaren Kode berri bat idatzi zen 2015ean, eta honen inguruan lege berriak onartu ziren.

HIRUGARRENA. Arestian aipatutako guztiarekin, enpresetan kontzientzia piztu da erabakiak hartzeko prozesuak eta barne kontroleko tresnak hobetzearen inguruan, administratzaileen jarduera sozietatearen interesetara egokitzeko. Kezka hori are nabarmenagoa da sozietate kotizatueta, non arau bidezko esku-hartzea esanguratsua izan da, kudeatzaileen gaineko kontrolak eragingarriak bihurtzeaz gain, merkatu nahiz inbertitzailei informazio osoa, gardena eta kontuzkoa emateko.

Horregatik, gobernu korporatiboaren edo gobernu onaren inguruan egin diren azterketak, funtsean, sozietate kotizatuentzako izan ohi dira, eta oraintsuago hasi dira sozietate ez kotizatuak ere kontuan hartzen, baina ez, ostera, merkataritzakoak ez diren sozietateak, kooperatibak esaterako, gure gizartean eta ekonomian kontuzko presentzia izan arren, egunean-egunean hazten ari dena. Horrexegatik, gobernu onaren gomendioak oso erabilgarriak izan daitezke esparru honetan, ohiko helburu orokor eta mutualistak erdiesteko.

LAUGARRENA. Gezurra badirudi ere, gaur egun bizi dugun COVID-19aren krisia dela eta, badirudi, gizartean berriz ere interesa sortu dela balore eta printzipio sendoak dituzten sozietate-egituren inguruan. Paradigma-aldaketak enpresa ikuspegi berri bat eskatzen du; beraz, mo-

mentu ona litzateke, jada badauden Gobernu Onaren arauak kooperatiben beharretara eta ereductara ere moldatzeko.

Duda-izpirik gabe, kooperatiba-aniztasuna kontuan izanda (tamaina, sektorea...), ez dirudi bidezkoa denik kudeaketa-proposamen zehatza eta bakarra plazaratzea, eta kooperatiben arauketak ere ezinezko bihurtzen du gobernu onaren gomendio guztiak goitik behera jarraitzea. Hala ere, testuinguru globalizatu eta lehiakorrean jardungo duen ekintzailatza kooperatibo modernoa erdietsi nahi badugu (ADN bereziari uko egin gabe, noski), merkatua eta sozietate kapitalistenganako hurbilketa ez dira mehatxu moduan ikusi behar, gobernu hobetzeko aukera moduan baizik.

Horrenbestez, gure uste apalean, kooperatiben gobernu hobetu daiteke, aipatu gomendioen ildotik, bide desberdinak irekitzen direlako:

- a) Gobernu onaren kode eta arauak sozietate mota hauen ezaugarri bereziei egokitzea, estatutu zein barne-araudien bidezko autorregulazioa erabilita. Horrela, kooperatiba bakoitzak bere beharrianetara moldatuko zituen gobernu onaren proposamenak, eta hartutako konpromisoen jarraipena egiteko tresnak ahalbidetuko zituen.
- b) Gobernu Onaren berezko kode berri bat sortzea, kooperatiben ezaugarriak, printzipioak eta baloreak kontuan hartuz. Kode honek kooperatiben berezitasunak defendatuko lituzke, baina aldi berean, gobernu profesionalizatu eta espezializatuaren alde egingo zuen, merkatuan dauden lehiakideen antzera.
- c) Hirugarren bide bat izan daiteke aurreko kapituluan aipatutako Hezkuntza, Prestakuntza eta Informazioaren printzipioetara jotzea, *management* arloko trebakuntza programak ezarriz, administrazio-organismoan sartu ahal izateko edo etengabeko ikaskuntza bezala. Horrela ziurtatuko zen gobernu onaren eginerak beneratan barneratzen direla eta egunerkerotasunean aplikatzen direla.

VI. BIBLIOGRAFIA ETA BESTE ITURRIAK

Bibliografía

CALVO VÉRGEZ, Juan. *La responsabilidad tributaria subsidiaria*. Madrid: Dykinson, 2016.

CHARTERINA MARTÍNEZ, Alejandro. «Los principios cooperativos». *La cooperativa y su identidad*. Madrid: Dykinson, 2016, 45.-54. or.

CHARTERINA MARTÍNEZ, Alejandro. «Los principios cooperativos en la Declaración de la Alianza Cooperativa Internacional sobre la identidad cooperativa». *La cooperativa y su identidad*. Madrid: Dykinson, 2016, 55.-77. or.

CURRAU CRIADO, Rafael. *Buen gobierno corporativo para PYMES. Sociedades de capital y cooperativas*. Valencia; Tirant lo blanch, 2019

DURAN CASTIÑEIRA, Beatriz. «El informe anual del gobierno corporativo», *Comentario práctico a la nueva normativa de Gobierno Corporativo* ARRIASVARONA, Javier eta RECALDE CASTELLS, Andrés (koord.) Madrid: Dykinson, 2015, 217.-225.or.

GADEA SOLER, Enrique; SACRISTÁN BERGIA, Fernando eta VARGAS VASSEROT, Carlos. *Régimen jurídico de la sociedad cooperativa del siglo XXI: realidad actual y propuestas de reforma*. Madrid: Dykinson, 2009.

GARCÍA ÁLVAREZ, Belen. «La retribución de los miembros del consejo rector o de los administradores en las sociedades cooperativa». *REVESCO. Revista de estudios cooperativos*. 2015eko hirugarren lauhilekoa, 119 zk., 53.-76. or.

JORDÁN GARCÍA, Rafael eta NAVARRO MATAMOROS, Linda. «Capítulo Primero. Aplicabilidad de los principios de gobierno corporativo a las sociedades no cotizada y la reforma de la Ley de Sociedades de Capital basada en la mejora del gobierno corporativo». *Mejora del gobierno corporativo de sociedades no cotizadas*. Madrid Dykinson, 2015, 24.-41.or

MATEU DE ROS CEREZO, Rafael. *El Código Unificado de Gobierno Corporativo*. Pamplona: Thomson Reuters Aranzadi, 2006.

MORAL MOZAS, Adoracion eta PUENTES POYATOS, Raquel. «La responsabilidad social corporativa y su paralelismo con las sociedades cooperativas.» *REVESCO Revista de estudios cooperativos*. 2010ko abendua, 103. zk., 75-100 or.

PUENTES POYATOS, Raquel, VELASCO GÁMEZ, María del Mar eta VILAR HERNÁNDEZ, Juan «El buen gobierno corporativo en las sociedades cooperativas.» *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, 2006, 98 zk., 118.-140. or.

REYES SEPÚLVEDA, Jessica María. «Importancia del gobierno corporativo como herramienta para la gestión del riesgo de las empresas cotizadas y no cotizadas y las mejoras recientes a la regulación Española.» *REDS Revista de Derecho, Empresa y Sociedad*. 2016ko urtarrila, 8. zk., 255.-264. or.

RONCERO SÁNCHEZ, Antonio (koord.) «Junta General y Consejo de Administración en la sociedad cotizada, Estudio en todos sus aspectos de las recientes reformas introducidas en la Ley de sociedades de capital por las Leyes 31/2014, de 3 de diciembre, 5/2015, de 27 de abril, 9/2015, de 25 de mayo, 15/2015, de 2 de julio y 22/2015, de 20 de julio, así como de las Recomendaciones del Código de Buen Gobierno de febrero de 2015» I. eta II. *Liburukiak*. Nafarroa: Aranzadi 2016.

SOUZA DE MIRANDA, Jose Eduardo. «El buen gobierno de las Sociedades Cooperativas y la gestión bajo los valores del Cooperativismo: una reseña didáctica.» *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*. 2015ko abendua, 28. zk., 249-254 or.

VICENTE PESCADOR, Alberto. «Capítulo 5. Equilibrio entre profesionalización y gestión democrática desde la perspectiva de la ACI», *Estudio sistemático del principio cooperativo de gestión democrática*. ENCISO, Marta. (zuz.) eta GAMINDE, Eba. (zuz.) Madril: Dykinson, 2018.

VILLORIA MENDIETA, Manuel. *Ética pública y buen gobierno. Regenerando la democracia y luchando contra la corrupción desde el servicio público*. Madrid: Tecnos, 2015.

Legeria

- 27/1999 Legea, uztailaren 16koa, Kooperatibei buruzkoa. EAO 170 zk., uztailaren 17koa.

- 26/2003 Legea, uztailearen 17koa, Gardentasunari buruzkoa. EAO 171 zk., uztailearen 18koa.
- 1/2010 Legea, uztailearen 2koa, Legegintzako Errege Dekretua Kapital Sozietateei buruzko testu bategina onesten duena. EAO 161 zb., 2010ko uztaiarenean 3koa.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa. EAO 295 zk, abenduaren 10ekoa.
- 31/2014 Legea, abenduaren 3koa, Kapital Sozietatearen Legea aldatzen duena, korporazio-gobernua hobetzeko. EAO 293 zk, abenduaren 4koa.
- 22/2015 Legea, Kontuen Auditoretzari buruzkoa. EAO 173 zk, uztailearen 21ekoa.
- 11/2018 Legea, irailaren 28koa, Merkataritza Kodea, Kapital Sozietateen Legea eta 22/2015 Auditoretza Legea eraldatzen dituena, finantzakoa ez den informazioa ta dibertsitate ataletan. EAO 314 zk, 2017ko abenduaren 29koa.
- 11/2019 Legea, abernduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibei buruzkoa. EAO 14 zk., 2020ko urtarrilaren 16koa.

Beste iturriak

- CNMV. *Informe de la comisión especial para el fomento de la Transparencia y eguridad en los mercados y las sciedades cotizadas* (Comisión Aldama), 2003.
- CNMV. *Código Unificado de Buen Gobierno de las sociedades cotizadas*, 2006. Madrid: Edison.
- CNMV. *Código de buen gobierno de las sociedades cotizadas*. 2015. Madrid: Edison
- CNMV. *Guía técnica de buenas prácticas para la aplicación del principio «cumplir o explicar»*, 2016. Madrid: Edison.
- CNMV. *Informe anual de gobierno corporativo de las entidades de valores admitidas a negociación en mercados regulados*, 2018. Madrid: Edison.